

## 5. ZARATA

<b>Ekipoa</b>	<b>Isilgailu xurgatzailea</b>
<b>Kodea</b>	E-5000
<b>Ingurumen-hobekuntza</b>	Hodietako zarata murrizten du –bai tartekoa, bai atmosferara irteten dena– eta soinu-immisioen maila hobetzen du. Soinu-murrizketaren efizientzia hainbat faktoreren menpe dago (tenperatura, gas-presioa, emaria, isilgailua eraikitzeko materiala, neurriak eta abar).
<b>Honetan datza:</b>	<p>Gasa jariatzen den hodietan (aireztapen-sistemak, aire girotua) tartekatzen diren elementuak dira isilgailu xurgatzaileak. Transmittzen den zarata ahalik eta gehien murriztea da haien egitekoa.</p> <p>Bi isilgailu mota hauek daude:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Isilgailu erresistiboak: material xurgatzaileko estaldura dute barruan, eta estaldura horren arabera izaten da isilgailuaren funtzionamendua. Hainbat motatakoak izan daitezke (gelaxkak, zirkularrak eta abar).</li> <li>- Isilgailu errektiboak: forma geometrikoekiko mendekotasuna dute ezaugarri nagusi. Ganbera bat edo gehiago, barreiatzaileak, erresonadoreak eta abar eduki ditzakete, eta elementu horiek nolabaiteko inpedantzia ematen diote transmititzen den energiari. Inpedantzia horrek eragiten du energia akustikoaren zati bat atzera itzultzea, isilgailuak igorri gabe. Besteak beste, lasaikuntzako isilgailu errektiboak, lasaikuntza atmosferikokoak eta errektibo-xurgatzaileak azpimarratu behar dira.</li> </ul> <p>Honako atal hauek dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Inguratzailea eta gelaxkak, txapa galvanizatuzkoak eta/edo lakatuzkoak edo altzairu aleatuzkoak edo herdoilgaitzezkoak.</li> <li>- Material xurgatzailea: beira-zuntza/harri-ilea/poliesterra.</li> </ul> <p>Soinu-eraginaren maiztasunaren eta zarataren ezaugarrien baitan dago soinua indargabetzea.</p>
<b>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</b>	<p>Elementu hauek dituzten industria guztietan aplikatzen da, oro har: haizagailuak, putz-egileak, ekipo elektrogenoak, kogeneradoreak, motorrak eta abar (NACE: C atala, manufaktura-industria).</p> <p>Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p>